

Usurbilgo Udala

2019KO EKAINAREN 15EAN EGINDAKO UDALBATZAREN ERAKETA BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Aroa Etxeburua Ugartemendia
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suarez Perez

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza

Eguerdiko 12:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.


Usurbilen, 2019ko ekainaren 15ean, eguerdiko 12:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udala eratzeko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

1.- KORPORAZIO BERRIAREN ERAKETA.

Idazkariak saioaren hasiera deklaratu eta Hauteskunde Legearen 195 artikulua eraketaren ordenaren inguruan arautzen duena irakurri du.

Artikuluak hau dio:

“1. Udalbatzak saio publikoan eratuko dira, hauteskundeak izan eta hogeigarren egunean, baldin eta aurkeztu ez bada hauteskundeekiko auzi errekurtsorik, hautatutako zinegotziak izendatzearen kontra. Aldiz, errekurtsoren bat aurkeztu bada, hauteskundeak egin eta berrogeigarren egunean eratuko da Udalbatza.



Usurbilgo Udala

2. Horretarako, Adin Mahaia eratuko da honako kide hauekin: ekitaldian agertutako hautetsi zaharrena eta gazteena. Mahaiko idazkari bezala Udalbatzaren idazkariak berak jardungo du.

3. Mahaiak egiaztatu egingo ditu aurkeztutako kredentzialak edo hautetsien nortasunaren akreditazioak, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak Udalera bidalitako ziurtapenen arabera.

4. Aurreko operazioa eginda, Mahaiak eratutzat jo du Udalbatza, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua badago. Aipatu gehiengorik ez badago, bi egun beranduago bilkura egingo da, eta han eratuta geratuko da Udalbatza, edozein dela ere bertaratutako zinegotzien kopurua.”

Argibideen ostean, eraketari ekin diote.

Kasu honetan, adin-mahaia honela osatu da:

Zinegotzi adinekoena: Carlos Perez Fraisoli.

Zinegotzi gazteena: Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Jarraian, idazkariak kredentzialak irakurri ahala zinegotzietan beren eserlekua hartu dute.

Hamahiru zinegotziak agertu direnez, zinpeko aitorpenari ekin zaio.

Idazkariak, zinpeko aitorpenari buruz adierazi du legeak diola Konstituzioari zin egin behar zaiola eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartzeko, hori egin ezean ezingo lukeela kargua hartu eta alkatearen hautapenean parte hartu ere ez.

Idazkariak zinegotzi bakoitza izendatu du eta hauek zin egin dute, hurrenkera honetan:

Luken Arkarazo Silva: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Andoni Atxega San Sebastian: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Mirari Azurmendi Sorazu: “Bai, legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Itziar Basterrika Unanue: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Lur Etxeberria Gurrutxaga: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Aroa Etxeburua Ugartemendia: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Jose Mari Iribar Zapirain: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.



Usurbilgo Udala

Beñat Larrañaga Urdanpilleta: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Carlos Pérez Fraisoli: “Hala beharrez hitz ematen dut”.

Oskar Santamaria Pikabea: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Agurtzane Solaberrieta Mesa: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Francisco José Suárez Pérez: “Agintzen dut Konstituzioa eta Lege guztiak errespetatzea”.

Josune Urkola Larrarte: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Adin-mahaiaren lehendakariak Udala eratutzat jo du hitz hauekin: “Udala eratuta dago”.

Udala eratu ondoren, alkatearen hautaketari ekin zaio.

2.- ALKATEAREN HAUTAKETA ETA JABETZA HARTZEA.

Idazkariak Hauteskunde Legearen 196 artikulua irakurri du, alkatearen hautaketari dagokiona. Honela dio:

“Udalbatzaren eraketa bilkura berean, alkatea hautatzeari ekingo zaio, hurrengo prozedura honi jarraituz:

- a. Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke izangai.
- b. Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hautetsi izendatuko da.
- c. Inork ez badu gehiengo absolutua lortzen, alkatea izendatuko da, udalerrian herritarren botoen kopuru handiena lortu duen zerrendako burua den zinegotzia. Berdinketa gertatuz gero, zozketa eginez ebatziko da.”

Kasu honetan, izangaiak dira:

Agurtzane Solaberrieta Mesa
Josune Urkola Larrarte
Francisco José Suárez Pérez

Bozketa sistemari dagokionez, idazkariak adierazi du bozketa ahoz egitea planteatzen dela, zinegotzien izenak alfabetikoki ordenatuta esanda. Baten batek bozketa sekretua



Usurbilgo Udala

izatea nahi balu, nahi hori agertu beharko luke eta gehiengo osoz onartu beharko litzateke bozketa sekretua izatea.

Ez du inork bozketa sekretua izaterik eskatu.

Jarraian, lehendakariak zinegotzien izenak esan ditu eta bakoitzak bere botoa eman du.

Luken Arkarazo Silva: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Andoni Atxega San Sebastian: Nire bozka Josune Urkolarentzat.

Mirari Azurmendi Sorazu: Nire bozka Josune Urkolarentzat.

Itziar Basterrika Unanue: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Lur Etxeberria Gurrutxaga: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Jose Mari Iribar Zampirain: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Beñat Larrañaga Urdanpilleta: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Carlos Pérez Fraisoli: Nire bozka Josune Urkolarentzat.

Oskar Santamaria Pikabea: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Agurtzane Solaberrieta Mesa: Nire bozka Agurtzane Solaberrietarentzat.

Francisco José Suárez Pérez: Zurian bozkatzen dut.

Josune Urkola Larrarte: Nire bozka Josune Urkolarentzat.

Jarraian, idazkariak emaitzak irakurri ditu.

Emandako bozka kopurua: 13

Baliodun botoak: 13


Zuriak: 1

Agurtzane Solaberrieta Mesa: 8 boto

Miren Josune Urkola Larrarterentzat: 4 boto

Francisco José Suárez Pérez: 0 boto

Emaitzak kontutan hartuta, mahaiko lehendakariak adierazi du Usurbilgo alkatea 8 botorekin Agurtzane Solaberrieta Mesa proklamatzeko dela.



Usurbilgo Udala

Txaloak izan dira alkate berriarentzat.

Idazkariak adierazi du alkateak kargua hartzeko, indarrean dagoen legeak Konstituzioari zin egin behar zaiola esaten duela eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartu ahal izateko.

Hori horrela, Agurtzane Solaberrietak adierazi du: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Xabier Arregi Iparragirre, kargua uzten duen alkateak, Agurtzane Solaberrieta Mesa alkate berriari karguaren ikurra eman dio hitz hauek esanez: “Agurtzane, hementxe daukat eskuetan Usurbilgo aginte-zumea. Zuri ematea ohore handia eta atsegin handia da niretzat.

Ondo ezagutzen zaitut eta badakit zume honek adierazten dituen baloreak bat datozela zure izateko eta agintea ulertzeko daukazun moduarekin. Beraz, bat dator zurekin. Aginte-zume hau xumea da, malgua da baina ez hauskorra, borobila eta ez goitik beherakoa.

Hementxe dauzkat berdintasunaren eta feminismoaren baloreak eta orain Usurbilgo bigarren emakume alkatearen eskuetara doaz.

Ziur naiz zuk, Agurtzane, osatuko duzuen gobernu taldeak eta udal osoak ekarri handia egingo diozuela herri honi eta ziur naiz aldi berean herri hau zuen ondoan egongo dela, beti prest aurrera egiteko.

Gure alkate, Agurtzane, tori Usurbilgo agintze-zumea.”

Txaloak izan dira.

Agurtzane Solaberrietak, alkate kargua hartu berritan, hitz hauek esan ditu:

“Eguerdi on!

Ezer baino lehen, bihotz-bihotzez, eskerrak eman nahi dizkizuet berriro ere guran konfiantza jarri duzuen herritarroi; eskerrak eman nahi dizkiet ere udal hauteskundeetan aurkeztu diren beste alderdi politikoen alde egin duzuen herritarroi; eskerrik asko gaur etorri zaretenoi, inguruan ditugun familiakoei eta lagunei, zuen babesa, laguntza eta konplizitaterik gabe nekez egongo ginateke hemen eserita. Eta, nola ez, eskerrik asko hemen zaudeten zinegotzi guztioi hartutako konpromisoarengatik.

Behin baino gehiagotan esan dut: niretzat ohorea da Xabiren eskutik lekukoa hartzea. Eskerrik asko zuri ere Xabi, Usurbilen eta usurbildarren alde zure onena emateagatik. Izan ere, zinez baieztatu dezaket horrela aritu zarela. Siglak alde batera utzi eta pertsonen arteko tratua zaintzen eta, beti, interes orokorrari begira, fin-fin. Nekaezin.



Usurbilgo Udala

Eta, gaurkoan ere, gogoan ditut aurrez aulki honetatik pasatu diren alkateak ere, handia baita egin duzuen lana!!

Ikusten duzuenez, Usurbilen ez dugu aginte makilarik. Gure aginte-ikurra zumezko uztai da, uztai gisan bildutako zume luzexka bat muturrak metalez babestuak dituena. Nire ustez, zumezko uztai honek erakusten du agintea nolakoa izan behar duen: apala eta malgua, baina, aldi berean, sendoa eta tinkoa. Zumea bezala.

Eta esango nuke ezaugarri horiek bat datozela gure izateko eta jarduteko moduekin. Legealdi berria hastera doa, eta gu bokazio horrekin gatoz lanera: apaltasunez, malgutasunez, baina, aldi berean, sendotasunez.

Zeregin eta ardura berri honi heldu aurretik, Joseba Sarrionandiaren *Lapur banden etika ala politika* liburua irakurtzen nabil egunotan. Zinez, ikasbide ederra izaten ari da. Berba andana magistrala. Liburua irakurtzen izan dut Miguel de Cervantesen atsoitzaren berri: "Oinazera joan nahi eta Ganboara heldu garena" delakoa. Izan ere, banderizo herria da gurea, eta euskaldunok bandokide sendunak.

Sarik bi aukera baino ez daudela dio: lapur banden etikaren partaide bilakatzea ala politika egitea. Dilema gaitza, inondik inora. Politika egiteko ezintasunaz mintzo da, baina, aldi berean, politika egiteko obligazioaz. Hori bai, politika beste gisa batera obratzeko deia egiten du, lapur banden etika gogaide izatetik urrun. "Kultura politiko berri bat sortu ezean, *phatos* politikoak ez du etorkizunik, ez izaterik. Hurkoaren ideien errespeturako lekuri izan ezean, gure burua dugu lehen etsaia. Errepublikanoa eratu ere, hurkoarekiko errespeturik ezean, politikak ez du izaterik". Hain zuzen, horixe da nire asmoa.

Herritarrek Udala kudeatzeko ardura berriro ere EHBilduren esku utzi badute ere, Usurbil ez da EHBildu, udalbatza honek erakusten duen bezala. Gutasuna aniztu beharraz dihardu Sarri. Gure herria anitza da, sentimendu politikoz anitza. Komunitateen arteko sareak josi behar ditugu, komunitate bat eta bakarra eraikitzeke. Gu anitza, baina bakarra. Eta, horretarako, ezinbestekoak ditugu ezberdinen arteko akordioak, adostasunak, elkarguneak, aliantzak. Interes alderdikoiak baztertu eta herri-interesei begira aritzeko deia egin nahi dut gaurkoan. Bai oposizioarekin, bai herritar guztiekin. Elkarlanaren bidetik aritu nahi dugu eta EHBilduko ordezkariok prest gaude lankidetzan aritzeko, elkarri begiratu, elkarri entzunez, hitz eginez, eztabaidatuz, errespetuz, elkarbizitzan sakonduz, etengabe aliantzak eta adostasunak eraikiz eta inor, inor, bazterrean utzi gabe. Izan ere, Usurbil guztiona da, eta guztiontzat izan behar du.

Politika egitea da, beraz, gure obligazioa. Politika askatasunerako tresna gisa, herritarren arazoak eta bizi-kalitatea konpontzeko tresna bezala. Egunotan politikak bere aurpegiarik makurrena erakutsi du, mercadeo hutsean aritu dira bulego politikoak, eta, ondorioz, batzuentzat ustelduta dago politika, lapur banden esku dago politika, eta, hain zuzen, horregatik egiten dut politikaren aldeko aldarria: Zenbat eta ustelago izan politika, orduan eta beharrezkoagoa baita politika, politika herrigintza gisa ulertua. Izan ere, guk politika diogunean herrigintza diogu: bere burua eraikitzen duen herri bat, herritarrak ezinbesteko eragile dituen herri bat. Langintza kolektiboa. Komunitarioa,



Usurbilgo Udala

bakoitzak ahal duen neurrian. Beste gizarte-eredu bat eraikitzeko ahala. Ilusioa. Komunitatearekiko konpromisoa. Nahitaezkoa. Irekia. Behar kolektiboak pertsonalaren gainetik jartzen dituen. Eta auzo/herriak bizirik mantentzen dituen ekimena, pertenezia sentimendua indartuz. Sortzailea. Ekintzailea. Motibagarria. Eta, zergatik ez, maitasuna.

Eta Udala eta kalea/herriko plaza txanpon beraren bi alde dira. Herrigintzaren bi aurpegiak. Eta, ezinbestean, herriak eta udalak eskutik helduta jardun behar dute. Malgutasunez, bidaide izan. Eskua luzatzen dizuegu gaur.

Niretzat erreferente historiko bat da Rosa Luxemburg. Borrokalari iraultzaile eta feminista. Duela mende bat inguru esan zuen: "Por un mundo donde seamos socialmente iguales, humanamente diferentes y totalmente libres" .

Helburu hori geure eginez, sendotasunez eta tinkotasunez jarraituko dugu, behetik gora, Usurbildik Euskal Herriaren noranzkoan, burujabetza lantzen; gure herria euskalduntzen; bizikidetzan sakonduz, euskal preso eta iheslari guztiak etxerako bidean jartzen; justizia soziala borrokatzen, herritar guztiek bizitza duina izan dezaten. Eta hori guztia begirada morez egin nahi dugu, feminismotik edanez.

Ardura honi diodan errespetutik, konpromisoa, ilusioa eta gogoia baditugu. Gure onena ematera gatoz. Eskerrik asko, Usurbil. Aurrera Usurbil!"

Txaloak izan dira.

Alkateak eskerrak eman ditu eta hitza eman die gainontzeko batzarkideei.

Francisco José Suárez Pérezek hitza hartu du eta adierazi du: "Eskerrik asko hona etortzeagatik guztioi. Ezer baino lehen eskertu nahiko nizueke emandako konfidantza, benetan niretzat ohore handi bat da; ohore handi bat da herria egoera puroan politika kokatzen den lekua baita. Politika, larriz idatzita, herrian baitago, goiko instituzioetan ez hainbeste, beharrezko eta erabilgarriak izan arren. Herritarrok harreman zuzen bat gure ordezkariekin herrian daukagu eta denok batera gure arazoak konpon ditzazkegu, ukonduz ukondo, gizarte justu eta orekatu bat lortzeko.

Ez dut bukatu nahi aipatu gabe hau oso garai ederra dela, izan ere orain denok elkarrekin lan egin dezakegu, erabaki dezagun gizartea eraikitzeko bakean eta denon artean. Eskerrik asko."

Txaloak izan dira.

Alkateak gaurko saioa amaitutzat eman du.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du eguerdiko 12:20ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.